



**GOBERNU JUNTAK 2023ko otsailaren 27an EGINDAKO
OHIKO BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

MAITE ANTON LENO (lehendakaria)

OÑATI

ETORRITAKOAK

ANDER GARAY
AINHOA LETE
UNAI ELKORO
IRAITZ LAZKANO
GORKA ARTOLA
IZARO ELORZA

ARRASATE
BERGARA
ARETXABALETA
ELGETA
BERGARA
OÑATI

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA

Leire Ucin Soraluze

2023ko otsailaren 27an, 11:15etan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren bilkura hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

1.- Aurreko Gobernu Juntako bilerako akta onartzea, hala badagokio.

Aurreko aktari buruz inork ez du ezer esateko, beraz otsailaren 14ko ez-ohiko bilkurako akta aho batez onartzen da.

Nafarroa Etorbidea, 17 – 20500 Arrasate (Gipuzkoa)



2.-Lehendakariaren ebazpenen berri ematea.

Inork ez dauka ezer esateko ebazpenei buruz.

3.- Etxeko hondakin organikoa biltzeko poltsa konpostagarrien hornidura kontratua onartzea, hala badagokio.

Kontratuaren xedea

Kontratu honen xedea ekoizle txiki eta handien (etxebizitza, merkataritza, ostalaritza, etab.) etxeko hondakinen frakzio organiko konpostagarria biltzeko hainbat edukieratako (10, 40, 60 eta 120L) poltsa konpostagarrien hornikuntza da.

Kontratua loteka banatuko da, edukiera bakoitzeko poltsak lote bakarrari atxikiaz. Urteko aurreikusitako gutxi gora-beherako poltsa kopuru eta loteak ondorengoak lirateke:

- 1.LOTEA (10l.ko poltsak): 500.000 ale/urteko.
- 2.LOTEA (40l.ko poltsak): 60.000 ale/urteko.
- 3.LOTEA (60l.ko poltsak): 20.000 ale/urteko.
- 4.LOTEA (120l.ko poltsak): 20.000 ale/urteko.

Kontratuaren premia eta egokitasunaren justifikazioa

Mankomunitateak, 2020/01/21ean 10L, 40L eta 120L-ko poltsa konpostagarriak ID WASTE S.L. enpresarekin eta 60L-ko poltsa konpostagarriak ALQUI-ENVAS S.L. hornitzeko kontratuak sinatu zituen. Kontratu hauen iraupena urtebetekoa izan zen, izenpetzen den datatik hasita, eta beste 3 urte gehiagoz luzagarria, gehienez ere 4 urte bete arte. Kontratu hauek urtez-urte luzatu ditu Mankomunitateak 2023.01.21 arte, baina ID WASTE S.L. zein ALQUI-ENVAS S.L. enpresek Mankomunitateko Gobernu Juntari kontratua beste urtebetez ez luzatzeko eskaera egin zioten 2022ko azaroan, mundu mailan izandako lehengaien eta erregaien prezio gorakada dela eta ezinezkoa baitzaie poltsak Mankomunitateari hornitzea kontratuko prezioak mantenduz. Hau kontuan izanik, 2022.11.28an ospatutako Gobernu Juntan juntakide guztiek aho batez kontratu hauek ez luzatu eta lizitazio berria martxan jartzea erabaki zuten.

Baliabide-urritasuna

Mankomunitateak ez du baliabide material eta pertsonalik poltsa konpostagarriak fabrikatzeko.

Nafarroa Etorbidea, 17 – 20500 Arrasate (Gipuzkoa)



Prozedura: Irekia / **Tramitazioa:** Ohikoa

Kontratuaren epea

Kontratu honek urtebete iraungo du, izenpetzen den datatik zenbatzen hasita, eta beste urtebetez luzatu ahal izango da, gehienezko 2 urte bete arte. Luzapen hau kontratistarentzat derrigorrezkoa izango da, baldin eta kontratuaren iraunaldia amaitu baino bi hilabete lehenago egiten bada aurretiko abisua.

Kaudimen tekniko edo profesionala

Kontratu honen izaera bera edo antzerakoa duten horniduren zenbatekoak (azken hiru urteetako exekuzio maila altueneko urteko zenbatekoa dena) lizitatuzaileak aurkeztutako proposamen ekonomikoaren %70 edo gehiagokoa izan beharko du.

Baldintza berezia

Poltsen hornidura kaxa berrerabilgarri, birziklagarri edo %100ean birziklatutako materialezko kaxetan egin beharko da. Esleipendunak poltsen hornidura nola egingo duen deskribatu beharko du eta hornidura kaxen materialaren ezaugarriak ziurtatzeko beharrezko dokumentazio teknikoa aurkeztuko du.

Kontratuaren prezioa eta balioaren zenbatespena

Aurrez aipatu moduan, edukiera bakoitza lote ezberdindu bati atxiki zaio, gutxi gora-beherako kontratu osorako (2 urte) poltsa kopurua, prezio unitarioak eta lotekako prezioak ondorengoak izanik:

- **1.LOTEA (10l.ko poltsak).** 1.000.000 ale. 0,055 € (BEZ-a kanpo): 55.000€
- **2.LOTEA (40l.ko poltsak).** 120.000 ale. 0,21 € (BEZ-a kanpo). 25.200€
- **3.LOTEA (60l.ko poltsak).** 40.000 ale. 0,39 € (BEZ-a kanpo). 15.600€
- **4.LOTEA (120l.ko poltsak).** 40.000 ale. 0,5 € (BEZ-a kanpo). 20.000€

Hau kontuan izanik, gehienezko 2 urteko eperako kontratuaren gehienezko zenbateko ekonomikoa 115.800 € (BEZ kanpo)-koa litzateke.

Baldintza berezia

Nafarroa Etorbidea, 17 – 20500 Arrasate (Gipuzkoa)



Poltsen hornidura kaxa berrerabilgarri, birziklagarri edo %100ean birziklatutako materialezko kaxetan egin beharko da. Esleipendunak poltsen hornidura nola egingo duen deskribatu beharko du eta hornidura kaxeen materialaren ezaugarriak ziurtatzeko beharrezko dokumentazio teknikoa aurkeztuko du.

Proposatutako esleipen irizpideak. Justifikazioa

Kontratua esleitzeko oinarritzat hartuko diren eskaintzen balorazio-irizpideak eta horiei egotzitako haztapen edo ponderazioa honako hauek dira:

- Proposamen ekonomikoa: %60.
- Poltsa konpostagarrien ezaugarri tekniko eta funtzionalak: % 40.

Aipaturiko irizpide horietatik, poltsa konpostagarrien ezaugarri tekniko eta funtzionalak, balio-judizio baten mende daudenak, honako hauek dira:

- Poltsaren erresistentzia. Soldaduren eraginkortasuna tantaka ez egiteko eta bere sendotasuna betetzen ari garenean edozein tentsiorengatik ireki ez dadin: 20 puntu.
- Poltsak bilkaritik banatzeko erraztasuna, ebakitzerakoan haustura edo urraturik gabe: 8 puntu.
- Poltsaren benetako neurriak eta edukiontzietara hobeto egokitzeko gaitasuna: 8 puntu.
- Poltsaren lodiera errealak eta honen uniformetasuna: 4 puntu.

Poltsen ezaugarri tekniko eta funtzionalei dagokionean, lizitazio prozesutik baztertuak izango dira gutxienez 20 puntu lortzen ez dituzten proposamenak.

Esleipen irizpideen puntuaketaren banaketa honi dagokionean, proposamen ekonomikoari pisu gehixeago eskaintzea proposatzen da (%60), baina poltsen ezaugarri tekniko eta funtzionalei ere garrantzi nabarmena eman zaie (%40). Ezaugarri tekniko eta funtzionalei zehazki %40ko pisua eman zaie, garrantzi handikoa baita poltsak kalitate onekoak izatea. Ezaugarri hauen artean, garrantzitsuena poltsaren erresistentzia izango litzateke, honen soldadurak sendoak eta erresistenteak izatea ezinbestekoa baita. Hori dela eta, poltsaren erresistentziari 20 puntu esleitzea proposatzen da. Bestalde, bigarren mailako garrantzia eman zaio poltsa bilkaritik banatzeko erraztasunari eta poltsa edukiontzietara egokitzeko gaitasunari, zehazki, bakoitzari 8 puntu. Azkenik, poltsen lodiera errealari eta honen uniformetasunari 3.mailako inportantzia emango litzaioke, zehazki 4 puntu esleituz.



Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (7): Maite Anton, Unai Elkoro, Iraitz Lazkano, Ander Garay, Gorka Artola, Ainhoa Lete, Izaro Elorza

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz, 3. puntua aho batez onartzen da.

4.-Papera eta kartoia saltzeko kontratuaren urtebeteko luzapena onartzea, hala badagokio.

Papera eta kartoia saltzeko kontratua luzatzeko proposamena (2022.09.30-2023.09.30). Kontratista: ARREGI ETXABE SAN JOSÉ, S.A..

Mankomunitateak, 2017ko irailaren 25ean, edukiontzi urdinetan, atez-ateko bilketetan, komertzio eta

industrietako kartoi bilketan eta Garbiguneetan bildutako papera eta kartoia saltzeko kontratua sinatu

zuen ARREGI ETXABE SAN JOSÉ, S.A. enpresarekin. Kontratu honen iraupena urtebetekoa izan

zen, izenpetzen den datatik hasita eta, bi aldeen adostasunez, beste 7 urte gehiagoz luzagarria,

gehienez ere 8 urte bete arte. Orain arte ARREGI ETXABE SAN JOSÉ, S.A. enpresak

eskaintako papera eta kartoia erosteko zerbitzua egokia izan dela kontuan hartuz,

Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuaren proposamena kontratua hau beste urtebetez

luzatzea da, 2022.09.30tik 2023.09.30 arte.

Puntua bozkan jartzen da, eta hau da emaitza:

Alde (7): Maite Anton, Unai Elkoro, Iraitz Lazkano, Ander Garay, Gorka Artola, Ainhoa Lete, Izaro Elorza

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, laugarren puntua aho batez onartzen da.

5.- Enpresen Ekimen Zentruko eskaerak onartzea, hala badagokio.

Hauek dira eskaerak:

Asier Rosado Saracibar (MTB Konponketak): 5-IM modulua uztea



Emma Carins (Hezkuntzen zerbitzua): 2-ZM moduluaren lagapena urtebetez luzatzea

Francisco Jurado Recio (Azkar Fisioterapia): Aretxabaletako 5-AR moduluaren lagapena urtebetez luzatzea

Luis Garmendia Echevarria (TX enmarkazioak): 8-IM moduluaren lagapena urtebetez luzatzea.

Puntua bozkan jartzen dute, eta hau da emaitza:

Alde (7): Maite Anton, Unai Elkoro, Iraitz Lazkano, Ander Garay, Gorka Artola, Ainhoa Lete, Izaro Elorza

Kontra: 0

Abstentzioa: 0

Beraz, aho batez onartzen da 5. puntua.

6.- Enviserrek Mankomunitateari ezarritako helegitearen ebazpenaren berri ematea.

Idazkariak adierazten du Enviser enpresak Mankomunitatearen kontra ezarri zuen helegitearen aldeko ebazpena heldu dela (000259/2022 zenbakiduna).

7.- Galdera eskaerak.

Ez dago.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 12:45etan, bukatutzat eman da bilkura.

Arrasaten, 2023ko otsailaren 27an

LEHENDAKARIA

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA

